

LGTB+ FOBIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Maiatzaren 17an ospatzen da **Homofobiaren, Transfobiaren eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Eguna**, eta ospatzen da, gogorarazteko, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) 1990eko maiatzaren 17an egindako Batzar Nagusian erabaki zuela homosexualitatea gaixotasun mentalen zerrendatik kentzea. Homosexualek, bisexualek eta transexualek jasaten duten diskriminazioa salatzeko eta pertsona horien eskubideek mundu osoan aurrera egiteko balio lezaketan era guztietako ekintzak koordinatzea da bere helburu nagusia. 2015ean, "bifobia" hitza erantsi zitzaion kanpainaren izenari.

2004an pentsatu zen egun hori ospatzea. Urtebete iraun zuen kanpainaren ondoren, 2005ean ospatu zen lehen aldiz, herrialde askotan jarduerak eginez, LGBT ekintza militanteak barne.

Gaur egun, munduko 70 herrialdek baino gehiagok kriminalizatzen dute homosexualitatea, eta espetxe-zigorrekin zigortzen dituzte sexu bereko pertsonen arteko sexu-harremanak. Herrialde horietatik gutxienez bostetan (Mauritania, Iran, Sudan, Saudi Arabia eta Yemen, baita Nigeria eta Somaliako eremu batzuetan ere) heriotza-zigorra mantentzen da kasu horietarako. Herrialde horien kopurua etengabe aldatzen da; izan ere, herrialde batzuek homosexualitatea kriminalizatzeari uzten diote, eta beste batzuek, berriz, homosexualitatea kondenatzen duten lege berriak ezartzen dituzte.

Nazio Batuetako estatu kideek oraindik ez daukate ofizialki aitortuta sexu-orientazioan eta genero-identitatean oinarritutako diskriminazioa, nahiz eta giza eskubideen aldeko erakundeek, hala nola Giza Eskubideen Batzordeak, behin eta berriz gaitzetsi duten sexu-orientazioan eta genero-identitatean oinarritutako diskriminazioa.

Bestalde, dagoeneko transexualitatea ez dago buru-nahaste gisa katalogatuta DSM V-n, hau da, *Trastorno mentalen diagnosi eta estatistika eskuliburuaren* bosgarren edizioan; eskuliburua Ipar Amerikako Elkarte Psikiatrikoak argitaratu zuen, eta bertan agertzen da *genero-disforia*.

2021az geroztik, 130 herrialdek baino gehiagok aitortu eta ospatzen dute *Homofobiaren, Transfobiaren eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Eguna*.